



55 Zka.

NOVIEMBRE 2011 AZAROA

Nº: 55

Gobernu Batzordekook buletin hau aurkeztu nahi dizuegu erabilgarri izango zaizuelako itxaropenez. Ez da gure asmoa bertan elkargoaren eguneroko lanean darabiltzagun jardun eta ekintza guztiak jasotzea, baina, honen bidez, hurbildu egin nahi zaituztegu gure aburuz lanbide honetan garrantzitsuak izan daitezkeen gaietara.

Parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Bidaliezaguzue iradokizunak, keak edo ideiak datozen buletinak egitean kontuan har ditzagun.

VALENTZIAKO KONGRESUA



3, 4 y 5 de Mayo - Valencia, 2012
www.congresoeducacion-social.org

2012ko maiatzaren 3, 4 eta 5ean Valentzian Gizarte Heziketako Estatuko Biltzarra egingo da. GHEE-CEESPVk guztiok animatzen zaituzte hain jardunaldi garrantzitsuan parte hartzera.

Beste alde batetik, jakinarazi nahi dizuegu gure elkargoak kongresu horretako Zientzi Batzordean parte hartuko duela, Jesús Otaño ordezkari izango dugularik.
[Gehiago irakurri...](#)

TEKNOLOGIA BERRIETAN PRESTAKUNTZA

B-Side (beste batzuen artean Educatoren sortzaileak) taldearekin lankidetzan, jakinarazten dizuegu elkargoak gizarte hezkuntza arloan erabil daitezkeen teknologia berriei buruzko prestakuntza jardunaldi bat jarri duela abian. Jardunaldi hau 2011ko azaroaren 26an, larunbata, izango da Topalekuren lokaletan.



Jardunaldian parte hartzeko prezioa 15 eurokoa izango da elkargoko kideentzat eta 25 eurokoa kide ez direnentzat. Plaza kopuru mugatua egongo da. Izen-emateak 94.416.03.97 edo ceespv@ceespv.org.

GHEE-CEESPVko ELKARGOKIDE BERRIEN I TOPAKETA 2011

Elkargoak dei egiten die 2011 urtean elkargoko kide egin diren profesional guztiei kafe-topaketa batera. Datorren larunbatean, 2011ko abenduak 17, izango da, 10:30etik 12:30era.

Topaketa honetan, GHEE-CEESPVren aurkezpena egingo dugu, ordezkari organoena eta beste gai interesgarri batzuk ere ukituko ditugu. Gainera, bertaratuei dokumentu profesionalizatzaileak banatuko zaizkie.

Nahitaezkoa da izena ematea, bulegoko telefono zenbakira deituta (944160397) edo ceespv@ceespv.org, helbidera e-mail bat bidalita. Izen-ematea dohainik izango da.



Gure lanbidea duinagoa eta ikusgarriagoa izateko lanean

Gure lanbidea duinagoa eta ikusgarriagoa izan dadin lanean jarraitzen dugu; horretarako, GHEE-CEESPVko gobernu organoetan:

- berraztertzeko errekurtsoak egiten ari gatzaizkie gure erkidegoan argitaratzen diren, eta ezagutzen ditugun, deialdi publikoei, zertarako-eta Gizarte Hezkuntzaren errealitatera doitzeko beharrezko aldarazpenak egin daitezzen eskatzeko.

- erakunde pribatuek (enpresa, GKE, elkarte...) eskaintzen dituzten lanpostu guztien jarraipen bat egiten ahalegintzen gara, lan hori guztia Gizarte Hezkuntzako elkargoen Kontseiluaren bidez gainerako elkargo eta Lanbide elkarteekin adostutako jarrera komun batean markoratuta.

Bestalde, gure babesa erakutsi nahi diegu guri ere eragiten digun krisi garai honetan agertzen ari diren manifestu askori. Manifestuei eginiko atxikipena gure Web orrian eta Facebooken ere aurki ditzakezue.

Amaitzeko, animatu egin nahi zaituztegu GHEE-CEESPV egunean-egunean egiten ari denaz informa zaitezten, eta gure lurraldeko elkargoan parte har dezazuen; horretarako, atal honetan GHEE-CEESPVren lurralde ordezkariak bakoitzarekin harremanetan jartzeko helbidea jarri dizuegu:

ALAVA-ARABA: alava@ceespv.org

GUIPUZCOA-GIPUZKOA: gipuzkoa@ceespv.org

VIZCAYA-BIZKAIA: bizkaia@ceespv.org

JAKINARAZPENA

 CEESPV facebooken dago jada. Egin zaitez partaide edo irakur itzazu albiste berriak. Gainera, elkargoan lanean ari gara Web orri berria diseinatzeko (hauetako proposamenen batean parte hartu nahi baduzu jar zaitez harremanetan GHEE-CEESPVren bulegoren batekin) Berrikuntzak zein diren jakinaraziko dizuegu.



ELKARGOAREN TXARTEL BERRIA



GHEE-CEESPVaren kide gisa identifikatzen gaituzten txartelak eguneratzen ari gara. Zure argazkia edo bertan agertzen den datu-uren bat aldatu nahi baduzu jar zaitez harremanetan Idazkaritza Teknikoarekin. Presta daudenean apurka-apurka helaraziko dizkizuegu. Jardunaldiak, asanbladak eta halakoak baliatuko ditugu txartel berriak banatzeko.

ORDEZKARITZA INSTITUZIONALA



Nafarroako elkargoaren batzar eratzailan parte-hartzea.

Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratze Sailburuordetzak urriaren 20an (goizez) antolatutako mintegian (Gizarteratze aktiborako eskubidea) parte hartu genuen; izan ere, laster Lanbideak hartuko du Oinarrizko Errenta Prestazioak izapidetzeko eta Gizarteratze Legearen aldarazpenak kudeatzeko ardura.



ARARTEKOa lanean dabil Euskadin IKTen bidezko e-gizarteratzea eta partaidetza sozial eta publikoa sustatzeari buruzko aparteko Txostenean. Txosten horren markean jasotako lan taldeetako batean parte hartzen ari gara gu ere. Hainbat erakunde eta organismotako pertsona batzuk IKT horien baliagarritasunaz eta Euskal Autonomi Erkidegoko esfera sozial eta publikoetako partaidetzaz aritu ziren hausnarketan.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren saioan izan ginen azaroaren 4an Gasteizko Artiumean.

GIPUZKOAKO I GIZARTE ESKU-HARTZE HITZARMENA



Aurreko buletinean jakinarazi genizuen bezala, 2014ra arte indarrean egongo den I Gizarte Esku-hartze hitzarmena sinatu zen Gipuzkoan. Hitzarmena GAOn dago argitaratuta [Gehiago irakurri...](#)



BIZKAIKO II GIZARTE ESKU-HARTZE HITZARMENA

Sarbidea jarri dugu 2011 urte honetara arte indarrean egongo den eta BAOan argitaratuta dagoen Bizkaiko II Gizarte Esku-hartze Hitzarmenerako. [Gehiago irakurri...](#)

ASEGURUA



Lanbide Erantzukizun Zibileko Asegurua. ZURICH konpainiarekin lanbide erantzukizun zibileko aseguru bat sinatu da. Honek hiru garrenen aurrean eta gizarte hezitzaile lanean sortutako erantzukizun ekonomikoak estaltzen ditu. Aseguru honetan, zinetan gure Elkargoa hartzailea den, onuradun gisa elkargokideak sartu dira urtebetez, 9 eurotan, eta 50.000 euro arteko estalduraz. Elkargokide oro sar daiteke nahi duenean, hileroko egingo baitira eguneraketak.

GHEKN edo GHEE-CEESPV

Elkargoen Kontseilu Nagusiak eta Euskadiko Gizarte Hezitzaileen Elkargoak lankidetzara harreman estua dute, eta lan-talde eta batzorde askotan hartzen duten parte Euskadin: Kontseiluko Komunikazio Taldearen koordinazioan, Nazioarteko, Prestakuntza Unibertsitateko, Lan eta Gizarte Egoerako edo beste batzuk erreferentzi hartuta. Beste gai batzuetan ere bai; esaterako, Valentziako 2012ko Gizarte Hezkuntzaren VI- Kongresuaren antolamenduari lotutako hainbat gaitan. Bestalde, badaude etorkizunerako lan proposamenak ere, eskolarekin, drogarekin eta beste gai batzuekin lotutako proiektu ministerialekiko lankidetzara eta ekarpenekin lotuta.

Jardun honi buruzko berriak "eduso.net"en eta Kontseiluaren facebook orrian aurki ditzakezue.

IRAKURGAI GOMENDATUAK

ARARTEKOAK GOMENDATUA, GIZARTE HEZITZAILEENTZAT INTERESAGARRI DELAKOAN

Arartekoaren 3/2011 gomendio orokorra, urriaren 5ekoa.

Jarduteko protokoloak lantzeko beharra jatorria erkidegoan duten eta Euskal Autonomi Erkidegoan bizi diren pertsona ijitoen finkatze-lekuetan esku-hartzeko.

Arartekoaren 4/2011 gomendio orokorra, urriaren 10ekoa.

Adingabekoen babeserako gaietan ardua duten erakunde publikoek eskatuta osasun datuak uztea.

AHOLKATUTAKO BESTE IRAKURGAI BATZUK

Aportaciones de la didáctica a la educación social

Parcerisa, A./ Et al. La educación social: una mirada didáctica. Relación, comunicación y secuencias educativas. Crítica y fundamentos. Irakurri gehiago...



Nº4 trobada d'educació social "experiencias en atención primaria" que Baleareetako elkargoak argitaratzen duena, GHEECEESPVren elkargokide batzuen artikuluak jasotzen dituen.



Ale honetan Gizarte Hezitzaileen prestakuntzaren bilakaera aztertzen du, hezitzaile espezializatuen prestakuntza proposamena Irakurri gehiago...



Moyano Mangas eta Jordi Planella Riberaren eskutik, liburu gomendagarria eta aparta iritsi zaigu.



GIZARDERATUZ Gizarte Zerbitzuei eta Gizarte Esku-hartzeari buruzko buletin dokumentala. 2021eko urtarrilean argitaratu zuen SII-Sek, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte gaietarako Sailarekin lan-kidetzan. Bi buletin dokumental bat-egitetik sortu zen - Gizarte.doc eta Eguneratuz- Hauek aurretik ere argitaratzen ziren Ongizate eta Gizarteratze Zuzendaritzak eskatuta, hurrenez hurren. Hilero jaso deza-kezu aldizkari hau e-mail bidez PDF formatuan. **(SIIS <http://www.siiis.net/es/boletin-gizarteratuz.php> sarrera orria jarri)**

PROPOSAMENAK ETA IRADOKIZUNAK BIDAL DITZAKEZUE DATOZEN BULETINETAN SARTZEKO: ceespv@ceespv.org ERA BEREAN, INTERESATZEN ZAIZUN ARLOREN BATEAN PARTE HARTZEKO, JARRI HARREMANETAN GUREKIN ZALANTZARIK GABE.